

## Olentzero eta Mari Domingirekin, musika, kantu, dantza zein bertso

Urumea bailarako herrietara egingo dute bisita, goizean zein arratsaldean. Gainera, Gabon gaueko kale buelta egingo dute Kantuz abesbatzak zein Musika Bandak, eta baserri baserri ibiliko dira Hernaniko bertso eskolakoak.

### URUMEA GABONAK

Gabon Gauari hutsik egin gabe, Urumea bailarako herrietara egingo dute bisita gaur, Olentzerok eta Mari Domingik. Eta haien etorrerarekin batera, egun bereziari doinua jarriko diote musikak, kantuek eta bertsoek. Izan ere, talde ezberdinak aterako dira kaleak alaitzera.

Goizean egingo dute Astigarragara bisita biek, eta Santiomenditik jaitsita, 11:30etan iritsiko dira herrira. Herri Eskolako atarian elkartuko dira haurrekin, eta kalez kale ibiliko dira denak elkarrekin. Eta ondoren, udaletxeko balkoira igoko dira Olentzero eta Mari Domingi, haurrekin batera abesteko.

Eta arratsaldean, berriz, preso eta iheslarien aldeko Olentzeroa aterako da, 16:00etan Oialumetik.

**Musika Banda, bertsolariak eta Kantuz abesbatza, Hernanin** Hernanira, berriz, arratsaldeko 18:00etan iritsiko da Olentzero, eta Kaxkoan barrena ibiliko da; baina ibilbide ezberdina egingo du aurtengoan: Plazara iritsi, eta kale-buelta musikatu hasiko du Ttarlako dantzariekin batera, Andre Kaletik behera jaitsi, Plaza Berri zeharkatu, eta Kale Nagusitik berriro Plazara igota. Bertan dantzatuko dute



Kalejiran ibili ziren Hernani Musika Eskolakoak atzo goizean, Olentzero hartuta.

Ttarlako gaztetxoek, eta segidan, 19:00ak aldera, haurren gutun eta muxuak jasoko ditu Olentzerok, 20:30ak arte.

Hori baino lehen, kale bueltan aterako dira Kantuz abesbatzako kideak ere, 12:00etan Milagrosatik abiatuta. Eta baserri baserri ibiliko dira Iraulio Pantalone Bertso Eskolako kideak, Olentzero hartuta, arratsaldeko 16:00etan Iparragirretik.

Eta Olentzero Kaxkoan zehar ibili ondoren, Musika Bandako kideak izango dira, kale horiek alaituko dituztenak, 20:00etan egingo baitute erronda.

Ereñotzun, berriz, eguerdiko 14:15etan elkartuko dira Txirrita eskolako patioan, eta bertatik abiatuko dira Gabon kantuan, haur eta gurasoak.

### Olentzerorekin hiru kale buelta, goizuetarrek

Goizuetan, behin ez, hiru bider ibiliko dira herriko kaleetan barrena, Olentzerorekin. Aurrena, goizeko 11:00etan abiatuta, Xalto eskolakoak aterako dira gabon eskean, eta DBH2koek ikas bidia egin dezaten izanen da bildutako dirua.

Gero, arratsaldeko 15:30etan, aterako da preso aldeko Olentzeroa, eta etxetik etxetik ibili ondoren, poteoa egingen dute iluntzean, ohi bezala.

Eta azkenik, Mari Domingirekin batera iritsiko da Olentzero, 18:30etan. Txino auzoan egingen diete ongietorria, eta herrian barrena ibili ondoren, goiko frontoian egonen dira.

Baina denetan goiztiarrenak aranoarrak izanen dira, goizeko 09:00etan jarri baitute hitzordua Suron. Olentzero hartuta ibiliko dira etxetik etxetik eta baserri baserri, kantuan. **K**

### GABON GAUEKO EGITARUA

#### ASTIGARRAGAN

**11:30**, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Xaguxar aisialdi taldeak antolatuta. Satiomenditik jaitsiko dira, eta Herri Eskolako atarian haurrekin elkartu ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira. Bukaeran, udaletxeko balkoitik abestuko dute haurrekin batera, eta bertatik agurtuko dituzte.

**16:00**, Euskal preso eta iheslarien aldeko Olentzeroa, Oialumetik abiatuta. Herriko kaleetan barrena ibili, eta 19:00etan elkarretaraztea egingo dute Joseba Barandiaran plazan.

#### HERNANIN

**12:00**, Gabon Gaueko kale buelta, Kantuz abesbatzak, Milagrosatik abiatuta.

**16:00**, Olentzerorekin baserri baserri, Iraulio Pantalone Bertso Eskolakoak, Iparragirren hasita.

**18:00**, Olentzero Kaxkoko kaleetan barrena, Ttarlako dantza taldeak antolatuta.

**20:00**, Gabon Gaueko erronda, Musika Bandak, Kaxkoan barrena.

#### EREÑOTZUN

**14:15**, Gabon kantuan aterako dira, Txirrita eskolako ikasle eta gurasoak, eskolatik abiatuta.

#### ARANON

**09:00**, Olentzero hartuta, etxetik etxetik, Surotik abiatuta.

#### GOIZUETAN

**11:00**, Xalto eskolako Olentzeroa, herriko kaleetan barrena.

**15:30**, Presoen aldeko Olentzeroa, etxetik etxetik, iluntzean, poteoa egingen dute.

**18:30**, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Txino auzoan egingo zaie ongietorria, eta herriko bueltaxka egin ondoren, goiko frontoian egongo dira.

### Hiru partiduko jaialdi berezia, gaur

HERNANI ERREMONTEA

Gabon Gaua ospatzeko, jaialdi berezia antolatu dute gaur, Galarretan. 16:00etan hasita, hiru partidu jokatu dira: Urrutia II-Zaldua / Beñat-Arruarte; Juanenea-Azpiroz/Ansa II-Agirrezabala; eta Segurrola-Ion/Aldabe-Endika. Ostegunean, berriz, material aukeraketa izango dute, 12:00etan, Bina-kakoaren lau finalistek: Urriza eta Larrañaga, eta Matxin III eta Barrenetxea IV.

### Manifestazioa gaur, preso alde

HERNANI SARE-ETXERAT

Hator, hator mutil/neska etxera lelopean, preso aldeko manifestazioa deitu dute Sarek eta Etxerategak gaur, Hernanin, iluntzeko 19:30etan hasita. Eta bukaeran, «preso ditugun herritarrek gogoratzeko», kantu bat eskainiko diete.

### 564 abestia gaur, euskal preso alde

ASTIGARRAGA PRESO ETA IHESLARIAK

Joseba Barandiaran plazan jarri dute hitzordua gaur, iluntzeko 19:00etan, preso eta iheslarien senide eta lagunek: «bete dezagun plaza 564 abestia kantatuz, euskal preso, iheslari eta deportatuen alde», luzatu diete deia, herritar guztiei.

### Jolasen txartelak doan, gaur arte

ASTIGARRAGA ASTIKO

Astiko merkataritza elkarteak antolatuta, ohe elastikoak eta puzgarriak jarriko dituzte Joseba Barandiaran, Norberto Almandoz eta Kontxa Etxeberria plazetan, ostiral eta larunbatean, goiz eta arratsalde. Eta gaur arte, doan ibiltzeko txartelak banatuko dituzte, Astikoren dendetan, erosketen truke.

**ALAIA**  
ODONTOLOGIA ZENTROA

PREBENTZIO ETA KONTSERBAZIO ODONTOLOGIA  
HORTZ ESTETIKA  
AHO KIRURGIA  
INPLANTEAK  
PROTESI FINKOA ETA MUGIKORRA  
PERIODONTZIA  
ORTHOAPNEA

ODONTOPEDIATRIA  
ERRADIOGRAFI PANDRAMIKOAK  
TELERADIOGRAFIK  
3D SCANNERRA  
AHO BARRUKO SCANNERRA  
KIRURJIA NABEGATUA  
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA

ETENIK GABEKO ORDUTEGI BERRIA  
Asteleheneetik ostiralera: 08:30 - 21:00  
Larunbatetan: 08:30 - 14:00

Antziola 11, behe. HERNANI Tel. 943 33 53 73 www.alaiaclinica.com alaiahernani@gmail.com

MARI FERRE  
ARRANDEGIA

NAGUSIA 36 943 550 489

EGURALDIA

**GAUR** Berdintsu jarraituko du eguraldiak, gaur. Goizean lainoak agertuko dira, baina hortik aurrera, giro eguzkitsua izango da nagusi. Tarteka agertuko dira laino gehiago, baina ateri eutsiko dio. Haizea hego-mendebaldetik sartuko da. **Min.10° / Max.18°**

BIHAR

lido beretik joko du bihar ere. Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira, baina ateri eutsiko dio eta giro argia izango dugu. Hegoaldeko haizea ibiliko da barnealdean, eta hego-ekialdekoa kostaldean. Giro epela izango dugu eguerdian. **Min.10° / Max.18°**

ARGITARRAZALEA

LAGUNTZALEAK

Hernaniko Udala

Astigarraga Udala

Dobera Euskara Elkarte

Goizuetako Udala

Arango Udala

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga)  
948 510800 (Goizueta) **GAUR Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **BIHAR Egunez: Tena** Nagusia, 16 (Astigarraga) **943 543718**  
*Gauz: Aldabe* Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** *Goizueta:* Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

## Zarkumendegin entrenatuko du Realak, hilaren 31n

Nesken aurreneko taldea Astigarragan izango da, Urte Zahar Egunean, goizeko 10:00etatik 12:00etara. Irekia izango da saioa.

**ASTIGARRAGA FUTBOLA**

Bisita berezia jasoko du Zarkumendegik, Urte Zahar Egunez: Realeko nesken aurreneko tal-

dea etorriko da Astigarragara, abenduaren 31n, entrenatzera. Goizeko 10:00etatik 12:00etara egingo dute saioa, eta irekia izango da, ikustera gerturatu

nahi duten guztientzat.

Mundarrok, gainera, gonbita luzatu die Urumea bailarako bizilagun guztiei, bertaratzeko: «emakumeen kirola ikusarazi

eta bultzatu nahi dugu, eta aurretik Gipuzkoan erreferente nabarmenentako bat da Realak», azpimarratu dute.

Izan ere, Espainiako Kopa

irabazi dute txuri-urdinek, eta beste hainbat errekonozimenduren artean, Urrezko Danborra jasoko dute urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean. **K**

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzten duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† MONICA LARBURU ODRIOZOLA**  
(Bittor Zabaletaren alarguna)  
Atzo hil zen, 95 urte zituela  
**- Goian Bego -**  
Seme-alabak: Martin eta Susana, Jon eta Kristiñe, Jose Ignacio eta Itziar, Bittor Antonio (†); bilobak: Manu (†), Oihan, Xabi, Mikel eta Lorea; anai-arrebak: Kontxa (†) eta Pedro (†), Juan Manuel (†), Maria (†), Andres (†), Jose Gabriel (†) eta Konsuelo (†), Juanita (†) eta Julian (†), Santiago (†) eta Rosalina (†); ezkon anai-arrebak: Roxario (†), Joxe (†) eta Maritere, Elias (†), Pedro (†), Arantxa, Axun, Pepita eta Mari Karmen; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **OSTIRALEAN, hilak 27**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZALEA** parrokian elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.  
**Hernanin, 2019ko abenduaren 24an**  
OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da gaur eguerdiko 12:00ak arte.

**MONICA LARBURU ODRIOZOLA**  
(Bittor Zabaletaren alarguna)  
**- Goian Bego -**  
Ama maitea iritsi zaizu abiatzeko unea, zure oroimenez beteko dugu bihotzeko hutsunea.  
**Hernanin, 2019ko abenduaren 24an**

**MONICA LARBURU ODRIOZOLA**  
Egun oso onak pasa ditugu zurekin, Monica. Besarkada bat familiari.  
**HERNANIKO SAN JOAN KONPARTSA**  
**Hernanin, 2019ko abenduaren 24an**

**Joaquin Iceta Pagola**  
1963ko urriaren 11n hil zen  
**Mayi Pikabea Ducaz**  
2011ko urtarrilaren 1ean hil zen  
**Joxe Igarriz Etxeberria**  
2004ko abenduaren 25ean hil zen  
Zure besoetan egon nintzen, eskerrik asko zure goxotasuna emateagatik.  
**ZUEN SEME-ALABAK, BILOBAK ETA BIRLOBAK ZURE EMAZTE, SEME-ALABAK ETA BILOBAK**  
**Hernanin, 2019ko abenduaren 24an**

I. URTEURRENA  
**Imanol Izagirre Arruebarrena**  
2018ko abenduaren 25ean hil zen  
Zure besoetan egon nintzen, eskerrik asko zure goxotasuna emateagatik.  
Inoiz ez zaitugu ahaztuko.  
**LEA ETXEXOAK**  
**Hernanin, 2019ko abenduaren 24an**

### AEKren aldeko zozketa egingo dute gaur, Hernanin

**ASTIGARRAGA-HERNANI AЕК**

Gabonetako zozketa egingo du Hernanialdeko AEKk, urtero bezala; eta gaur bertan izango da, Hernanin. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera erosi ahal izango dira errifak, Plazan; eta Sarek eta Etxeratek antolatutako manifestazioa bukatzean egingo dute zozketa. Jakinarazi dute, ohi bezala, errifei esker bildutako dirua izango dela Hernanialdeko AEK euskaltegiei laguntzeko.

### IRAGARKI MERKEAK

**Sagardotegirako sukaldaria** eta sukaldari laguntzailea behar dira. Eskaldunak.  
**Deitu: 625 256 777**  
**Esperientziadun andreak, etxetan lan egiteko ikastaro sozio-sanitarioa duenak,** lan egingo luke adinekoak zaintzen edota lagun egiten eta garbitasunean.  
Orduetgia: 7:00-9:00; 10:30-17:30.  
**Deitu: 654 122 548**  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

ERRUGBIA		
NSK. EUSKAL LIGA	Landarbaso-La Unica	0-76
INFANTILAK (SUB 14)	Ordizia-Hernani Atletico	35-10
FUTBOLA		
MUT. OHOR. ERREGIONALA	Hernani-Ordizia	1-0
MUT. JUB. LIGA NAZIONALA	Beasain-Hernani	2-2
NSK. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Eibar	0-2
WATERPOLOA		
MUT. SENIORRAK	Santoña-Hernani	9-6
SASKIBALOIA		
MUT. GIPIUZ. 1GO MAILA	Hernani-Atletico SS	76-57
MUT. GIPIUZ. 1GO MAILA	Zast Zarautz-Mundarro	73-64
MUT. JUBENILAK	Hernani-Atletico SS	48-50
ESKUBALOIA		
NSK. JUBENILAK	Usurbil-Mundarro	21-18
NSK. JUBENILAK	Ereintza-Hernani	32-25
MUT. KADETEAK	Elgoibar-Hernani 2	18-43

BOLEIBOLA		
MUT. EUSKAL LIGA	Hernani-Sestao	3-2
NSK. GIPIUZKOAKO LIGA	Goierri-Hernani	0-3
ERREMONTEA		
1GO PARTIDUA	Segurola/Aldabe	30-27
BINAKAKO TXAPELKETA	Matxin III-Barrenebea IV/Juanenea-Azpiroz	40-35
3. PARTIDUA	Urriza-Zubiri/Ansa II-Ion	40-39
4. PARTIDUA	Urrutia II-Larrañaga/Goikoetxea V-Garces	10-30
PALA		
BIZKAIA TORNEOA	Araiztegi-Irazustabarrena/Isasmendi-Ruiz de Azua	3-0
SAKANAKO TXAP.	Amaia Irazustabarrena-Azanza/Saraguetar-Ruiz de Larramendi	30-29
SAKANAKO TXAP.	Ekhine Balerdi-Gorostiaga/Gomez-Lusarreta	30-19
SAKANAKO TXAP.	Enara Macicior-Mendinueta/Olatz Zulaika-Otxoa	10-30
ESKU PELOTA		
BINAKAKO TXAP. NAGUSIA	Olaizola II-Aretxabaleta/Jaka-Zabaleta	9-22
PROM. BINAKAKO TXAP.	Alberdi-Salaverri/Salaberria-Tolosa	22-16
MUT. JUBENILAK	Eñaut Lizeaga/Tolosa	16-22

MUT. JUBENILAK	Aloña Mendi/Unax Uitzu	5-22
MUT. INFANTILAK	Oier Azpeitia/Zumaia	2-0
MUT. INFANTILAK	Izurun/Ianitz Gorrotxategi	2-1
TRINKETEAN	Endika Arizmendi/Pagazpe	21-40
TRINKETEAN	Unai Alvarez/Lagunak	40-7
TRINKETEAN	Behar Zana/Aimar Mujika	28-35
TRINKETEAN	Oinatz Insausti/Oiarpe	35-5
TRINKETEAN	Mikel Lasa/Behar Zana	35-9
TRINKETEAN	Oiarpe/Mattin Arluziaga	9-30
TRINKETEAN	Unai Etxarri/Oiarpe	30-26
LIZARRAKO TXAP.	Aiur Elizazu/Baños	3-18
LIZARRAKO TXAP.	Xabier Apaolaza/Baños	14-18
LIZARRAKO TXAP.	Jon Jara/Laudio	18-11
EGIAKO TXAP.	Ioritz Arrieta-Aranguren/Gelis-Arbizu	22-10
ATANON	Paul Ojuel-Uruzola/Apeztebea-Azanza	7-22
ARETAN	Gorka-Markel Lizeaga/Azketa-Elizegi	22-21
UMORE ONA TXAP.	Macicior-Oses/Aurrera Leitza	15-18